

apaltasunez bizi, besteek bizitzeko
aukera apala izan dezaten



Milurtekoaren
Garapenerako
Helburuak

Bidezko
merkataritza



Banka
etika

Kontsumo
arduratsua

GAZTEENTZAT

CAMPAÑA INSTITUCIONAL 2011-2012

Hezitzailearentzako gida

Material didaktikoen aurkezpena
NERABE ETA GAZTEENTZAT

3

1. Jarduera

Itxaropen seinaleak: erronka bat

6

2. Jarduera

Eztabaida kritikoaren garaia

13

3. Jarduera

“Domino efektua” eta Milurtekoaren Garapen Helburuen erronka

18

GAZTE OTOITZAREN gunea

Batasunaren otoitza pobreekin

25

Material didaktikoen aurkezpena
NERABE ETA GAZTEENTZAT

Azken 3 urteetan Caritaseko Kanpaina Instituzionalek herritarrei eta komunitate kristauari proposatu nahi izan diete etorkizuna duen gizarte bat posible egiteko balio batzuk bultzatzea eta praktikatzeari.

Orain, aurten, **Caritasek** Kanpainen ziklo berri bati emango dio hasiera, eta aurreko urteetan planteatu zituen balio ebanjelikoetan oinarrituta orain proposatu nahi digu denek artean posible egitea **eredu sozial eta ekonomiko** berria, non lurra hartuko duten zenbait baliok, besteak beste, komunioak, parte-hartzeak, dibertsitateak, doakotasunak, ahaidetasunak eta konpromisoak. Lortu nahi dugu gero eta pobreak eta baztertuagoak direnak bizi diren zeru ilun eta mehatxagarri hori argia eta urdina izan dadin, berriro munduan bizi garen guztiontzat.

Caritasetik, Komunitate Kristauaren izenean, aurtengo Kanpainarekin planteatu nahi dugu gizakiaren inguruan ibiliko den eta ingurumena errespetatuko duen Garapen berri baten eta Ekonomia berri baten premia larria. Krisi ekonomikoak bistan utzi du mugarik gabeko Hazkundean oinarritutako eredu ekonomiko honek eramaten gaituen irtenbiderik gabeko kale itsua.

Krisi honek agerian utzi du mundua bere ahalmen ekonomikoaren gainetik bizi dela. Herrialdeak eta herritarrak ekoizten edo irabazten dugunaren gainetik gaude zorpetuta.

Krisi honek agerian utzi du mundua bere ahalmen sozialen gainetik bizi dela: munduko biztanleen %20 da planetan dagoen aberastasunen %90aren jabe, eta aldi berean, 4000 milioi pertsona bizi dira pobrezia egoeran. Hau da, Hazkundean oinarritutako eredu ekonomiko honek ez dio mesederik egiten gizateria osoari, baizik eta gutxi batzuei soilik.

Azkenik, krisi honek agerian utzi du mundua bere ahalmen fisikoen gainetik bizi dela: Aurrekaririk gabeko erritmoan ari gara planeta suntsitzen. Urtero Naturak sortzen dituen baliabideen %25 gehiago kontsumitzen dugu.

Kanpaina honek gutako bakoitzari proposatu nahi diguna esaldi soil batean laburbil genezake, kanpainaren leloan hain zuzen ere: **“Xumetasunez bizi, beste batzuek bizi ahal izateko, besterik gabe.”** Ezin dugu besoak gurutzatuta geratu, indiferente, giza familiaren hiru laurdenak pobrezian nekez bizi diren bitartean (ikusi Mt 25, 31-40).

Kanpaina honek transmititu, esnatu eta mugitu nahi duenaren inguruan gazteak eta nerabeak sentiberatzeko eta hezteko ondoko material didaktikoak prestatu ditugu. Hemen proposatzen ditugun jarduera horien guztien atzean dagoen azken xedea da gazteari Kanpainaren mezua iristea lortzea eta argi geratzea: Gure bizimoduarekin, portatzeko eta jarduteko erarekin, gure inguruan **onerako** eragin dezakegu. Sinistu ala ez, gutako bakoitzak zerbait egin dezakeen **mundu zati bat** du... eta asko dira horren onurak jaso ditzaketenak..., ia gu konturatu gabe.

Jarraian jarduera sorta bat aurkezten dugu Kanpaina honen mezua lantzeko nerabe eta gazteekin:

Ikus-entzunezkoa

Gazteentzako Caritasen Kanpainaren

7 minutuko iraupena duen power pointen ikus-entzunezko automatizatu eta soinudun baten bidez gazteei Kanpaina honen edukia eta mezua aurkezten zaizkie.

1. Jarduera

Itxaropen seinaleak: erronka bat

Jarduera honen helburua da Kanpainaren ikus-entzunezkoan ikusi den edukia lantzea eta sakontzea. Mugarik gabe eta gauza guztien gainetik hazteko eta aberasteko grinarekin, horrek dakartzan ondorio negatiboekin, mugitzen den mundu baten eta ekonomia baten errealitatearen aurrean gogoeta pertsonala eginarazten saiatzen gara. Horren aurrean gonbidatzen dugu Itxaropenaren seinale izatera, kontrakarrean duen bizimoduarekin.

2. Jarduera

Eztabaida kritikoaren garaia

Jarduera honen helburua da esnaraztea eta espirtu kritiko gaztean probokatzea, kontsumo-gizartearen ezkutuko motorrak nola funtzionatzen duen erakutsiz. Kontsumo-gizartea norantz bideratzen den kontzientzia har dezan eta haren aurrean era kritikoan posizioa har dezan saiatzen gara. Horren guztiaren argitan bere bizimodua kuestionatzea eta birplanteatzea nahi dugu.

3. Jarduera

“Domino efektua” eta Milurtekoaren Helburuen erronka

Jarduera honen helburua da gazteak jabetzea gure bizimoduak, gure banakakoen ekintzek eta portaerek, oso txikiak diruditen arren, ondorio bat dutela beste pertsona batzuen bizitzan eta **ingurumenean**, onerako edo txarrerako. Ikusarazi nahi diegu munduan dagoen pobrezia errealitatea Mendebaldeko gizartearen bizimoduaren fruitu eta ondorioa dela, bertako herritar gehienena eta bere gobernatzaile guztiena. Horren aurrean posizionamendu eta inplikazio pertsonala hartzea bultzatu nahi ditugu Milurtekoaren Garapen Helburuen betetzea posible egiteko borroka daitezen

Gazteen otoitza gunea

Batasunaren otoitza pobreekin

Otoitz honekin aukera ematen dugu otoitzerako, Jainkoarekin elkartzeko, eta pobrezian, bazterkerian eta babesgabatasunean bizi diren gure neba-arrebeekin espirtuan batzeko gunea bat sortzeko. Gazteak gonbidatzen ditugu Jesusen abba Jainkoaren eskuetan jartzeko, bere eskuetan tresnak izateko eta posible egiteko mundu hobe bat, ahaidetsuagoa, bidezkoagoa, iraunkorragoa, hots, Jainkoaren Erreinua posible egiteko

1 Jarduera


Itxaropen seinaleak: erronka bat

Hezitzaileak gazteei zuzendutako Caritasen Kanpainaren 7 minutuko iraupena duen ikus-entzunezko bat proiektatuko du (*soinudun power point bat da eta diapositibak automatikoki pasatzen dira*). Ikus-entzunezko honen bidez seinale batzuk aurkezten dira, pintzelkada modura eta sinbolikoki gaur egungo errealitatea erakusten dutenak, gure munduan nagusi den gizarte eta ekonomia eredu ezaugarrituta. Hortik abiatuta, Caritasek gizarte eredu berri baten beharra proposatzen du, horrela, denen artean posible bilakatzeko mundu bidezkoagoa, anaitasunezkoagoa, elkartasunezkoagoa eta ingurumenaren ikuspegitik iraunkorragoa lortzea. Horrek gutako bakoitzaren konpromisoa eta inplikazioa eskatzen du.

Proiektzioa amaitutakoan hezitzaileak gazte bakoitzari *Itxaropenaren seinale izateko 1. laneko dokumentuaren fotokopia* emango dio. Agertzen diren trafikoko seinale batzuen esanahia gaineratik komenta dezake, egon daitezkeen zalantzak argitzeko, edo informazioa zabaltzeko karpeta didaktiko honetan bertan dagoen Helduen Kanpainaren aurkezpenaren gidotik hartuta ditzakeen datuak eta ideiak eman ditzake.

Hau egitean, 4-5 laguneko taldeak osatuko ditu 1. laneko dokumentua taldean lantzeko. Era honetan egin dezake:

- Lehenengo 1. eta 2. galderei erantzunago diete eta ondoren talde bakoitzak esandakoa bateratuko da.
- Ondoren 3. galderari erantzunago diote eta gero bateratu egingo dute.
- Azkenik 4. jarduera egingo dute. Seinaleak fabrikatu behar dituztenez, hezitzaileak talde bakoitzari orri zuriak emango dizkio seinaleak egin ditzan. Elkar bateratzean fabrikatutako seinaleak erakutsiko dira, eta nahi bada, posible izatekotan, leku ikusgarri batean, taulan edo orman zintzilika daitezke.



1. Laneko dokumentua



Azterketen ebidentziak erakusten digu krisia baino lehen hazkunde ekonomiko jarraituan ere, pobrezia arrakala ez zela txikitu, eta beraz, horrek behartzen gaitu formula berrietatik abiatuta gizarte eraikuntzarako eredu berriak bilatzera. (Caritaseko Foessa txostena)

“Askok ezin onartuzko bidegabekeriak toleratzen dituztela dirudi. Munduko pobreek oparotasunaren ateari joka jarraitzen duten bitartean, mundu aberatsak arriskua du bere ateko kolpe horiek ez entzuteko, gizatiarra dena bereizteko gaitasunik gabe.”
(Caritas in veritate 75.a)

“Krisiak gure bidea berrikustera, arau berriak hautatzera eta konpromiso era berriak aurkitzera behartzen gaitu. Horrela, krisia aukera bilakatzen da era berri bat bereizteko eta proiektatzeko.”
(Caritas in veritate 21.a)

“Globalizazio bidean dagoen gizarte batean, guztien onak eta hori lortzeko ahaleginak GIZA FAMILIA OSOA hartu behar dute bere baitan, nahitaez, hau da, herrien eta nazioen komunitatea, gizakiaren hiriari unitate eta bake itxura emanez, eta neurri batean, mugarik gabeko Jainkoaren hiriaren aurreikuspena betaz.”
(Caritas in veritate)

“BENETAKO AHAIDETASUNA lortzeko beharra da jokoan dagoena. Oso garrantzitsua da helmuga hori lortzea eta horrek “bihotzarekin” zehazki mobilizatzea eskatzen du, ekonomia eta gizarte prozesuen aldaketa eragiteko GUZTIZ GIZATIARRAK diren helmugetarantz.”
(Caritas in veritate 20.a)



1. Zer pentsamendu sortzen zaizkizue Caritaseko Kanpainaren ikus-entzunezkoan azaltzen diren Benedikto XVI.a Aita Santuaren Caritas in veritate enziklikako testuak irakurtzean?

1. Egungo errealitatearen seinalen batzuk



2. Egungo ekonomia eta gizarte ereduaren seinale batzuk



3. Caritasen proposamenak gizarte eredu berria posible bilakatzeko

idealismoa utopia
Altura mugak dituen errepidea. Ez dira sartzen ideal handiak dituzten pertsonak.

pertsonek
Zabalera mugak dituen errepidea. Banan-banan ibili. Ez ibili komunitatean.

gorde distantziak
Azaleko harremanak

Kontsumismo

Xahubidea

Taldearen lokartzea errespetatu

baztertuak
Ez begiratu ez eskuinetara, ez ezkerretara... Arriskua duzu egungo ekonomia sistemak bide ertzean botata eta baztertua utzi duen jendea ikusteko

pobreak

Presakoa da NORABIDE ALDAKETA BAT

GIZAKIAREN ONBIDEAREN inguruan mugitu behar da DENA. Denak egon behar du bere zerbitzura, NATURAREKIN harmonian

BIZI IZATEKO BESTE ESTILO bat praktikatu behar da, gizatiarragoa, ingurumenarekiko errespetuzkoa

Aberastasunen BIRBANATZE BIDEZKOA egiteko

Bidea eman baztertuari

Bidea eman HEGOALDEARI

2012

Zure Txanda

2015

MGH

Bidesaririk gabe

- Zer iritzi duzu hemen aurkezten diren seinaleen hiru blokeei buruz?
- Zer seinale gehiago gehituko zenuke bloke bakoitza osatzeko zure iritziaren arabera?
- Seinaleen laugarren bloke bat falta da, garrantzitsuena: zuek egingo dituzuen seinaleak zuen inguruan mundu gizatiarragoa eta humanizatzaileagoa posible egiteko. Ondoren, jarraian datorren Xumetasuna bizi izateko dekalogoak irakurri ondoren, era sinbolikoan zuen konpromisoak zehazteko seinaleak egin, bizi garen mundu honen ITXAROPENAREN seinale bilakatzeko.

2012

Zure
Txanda

Xumetasunaren decalogoia bizitzea

1. **Xumetasuna bizitzea** da gauza askoren beharrik ez izatea zoriontsua izateko, kontsumismoan erori gabe, ezta gauza berriak, azkenak erostera eramaten gaituzten modetan ere.
2. **Xumetasuna bizitzea** da alaitasun handiagoa izatea ematean edo partekatzean jasotzean baino, doakotasun hitzak duen botere misterioitsua aurkitu duzulako.
3. **Xumetasuna bizitzea** da behar ez diren gauzez beterik duzun bihotza hustea, eta adiskidetasunaren altxorraz, hurbiltasunaz, eta hurkoarekin elkartzeaz betetzea.
4. **Xumetasuna bizitzea** da pentsatzea zure balioa eta duintasuna zaren pertsonaren baitan daudela, eta ez daukazu edo betetzen duzun posizio sozialaren araberakoak.
5. **Xumetasuna bizitzea** da pobrezian eta beharrea bizi diren zure giza familiako hainbat eta hainbat neba-arrebari elkartasuna adieraztea, eta mobilizatzea eta inplikatzeko haiek baino hobeto ez duzulako bizi nahi.
6. **Xumetasuna bizitzea** da zure konfiantza eta segurtasuna jartzea ez dirutan edo ondasunetan, baizik eta zure ondasun espiritualetan, zure uste sendoetan eta sinesmenetan, zure Fedean, zure gaitasunetan, zure barruko indarrean eta maite eta preziatzen zaituztenen indarrean.
7. **Xumetasuna bizitzea** da bizi izateko lan egitea eta ez bizitzea lan egiteko.
8. **Xumetasuna bizitzea** da gozatzea bizitzak, Naturak egunero etengabe eskaintzen dizkigun opari ugariekin, eta jende gehienari oharkabean pasatzen zaizkionak.
9. **Xumetasuna bizitzea** da Natura errespetatzea eta zaintzea zure bizitzeko erarekin, birziklatuz, berrerabiliz, eta beharrezkoa ez den kontsumoa murriztuz.
10. **Xumetasuna bizitzea** da zure dirua erabiltzea zuk eta zure familiak duintasunez bizi ahal izateko; eta gainerakoek ere duintasunez bizi ahal izateko banka etikoan inbertitzen baduzu, eta ohitzen bazara bidezko merkataritzatik eta bertako merkatuetatik datozen gaiak exijitzen.

Horrela bizi bazara gizarte gizatiarragoa eta humanizatzaileagoa posible egiten lagunduko duzu. Mundu honetako ITXAROPEN seinale bihurtuko zara.

Baloratu zure burua 1etik 10era Dekalogoaren puntu bakoitzean, eta gero bakoitzean planteatu **ekintza bat oso zehatza**, edo bi, **dagoeneko** hile honetan zehar egiteko modukoak direnak. Horrela egiten baduzu, ziurtatzen dizugu zerbait oso berezia gertatuko zaizula bizitzan... zure bizi-kalitatea hobetuko duzu eta era berean bizi zaren munduaren bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duzu. Esperimentatzen ausartuko zara?

2. Jarduera

Eztabaida kritikoaren garaia

Gaia: Kontsumo gizartearen ezkutuko motorra

Hezitzaileak gazteei banatuko die 2. lan dokumentua eztabaidarako. 5-6 laguneko taldeak osatuko ditu eta ondoko lan hau proposatuko die:

- Taldeko bozeramaile edo idazkari bat izendatzea.
- Dokumentua irakurtzea eta arreta handiena ematen dieten gauzak, gertaerak, ideiak ateratzea eta zergatiak aztertzea. Zer iritzi atera da taldean dokumentu hau irakurtzean?
- Taldeen 1. bateratzea.

Hezitzaileak ondoren azaltzen den gaia planteatuko die beren taldeetan eztabaida dezaten:

- Talde gisa Hazkundearen gizartearen planteamenduen alde ala aurka gaude? Zergatik?
- Talde gisa Deshazkundearen proposamenak planteatzen duenaren alde ala aurka gaude?
- Gure adinekoak oso kontsumistak gara? Erosi, bota eta berriro erosteko horietakoak gara? Zergatik?
- Taldeen 2. bateratzea.

Amaitzeko, hezitzaileak prentsako ondoko berri laburra irakurriko du:

Zure mugikorrek hil egiten du

2011n Bartzelonako Telefono Mugikorren Mundu Azoka dela-eta 50.000 pertsona inguru batu ziren. Une berean, Kongoko Errepublika Demokratikoko gerra 13 urtez luzatzen ari zen eta orduz gero 5 milioi hildakotik gora eragin zituen. Azoka honen eta kontinente afrikarrean dagoen gerraren arteko harremana hitz batez laburbil daiteke: "KOLTANA". Koltana telefono mugikorren txip guztietan dagoen mineral bat da. Koltanak Kongoko Errepublika Demokratikoko gerrilla finantzatzen du, izan ere, herrialdeak mineral horren munduko %80ko erreserbak ditu, eta era berean mugikorren fabrikatzaileak aberasten ditu. Kontsumitzaile gisa gure esku dago gure mugikorren bizitza luzatzea, telefono konpainiak bere kanpainekin berria proposatzen digun bakoitzean aldatu beharrean.

Azkenik, galderak egingo ditu talde bakoitzak erantzun ditzan eta gero guztiaren bateratze orokor bat egongo da. Bertan denek izango dute hitz egiteko aukera, ez soilik bozeramaileak.

1. Prest gaude gure kontsumo-maila murrizteko, berria, azkena erostera bultzatzen gaituzten modak ez eragiteko? Prest gaude bizi garen hazkunde gizarte honek gure buruak herrestan eramatea ez onartzeko? Zergatik?
2. Zer egin dezakegu zehazki gure moduko pertsonok gure egunez egunekoan planeta iraunkorra eta berdintasunez bizi ahal izateko modukoa posible egiten laguntzeko? Zer ezaugarri izan beharko lituzke gure bizimoduak?

2. lan dokumentua eztabaidarako

Kontsumo gizartearen ezkutuko motorra

Zergatik erosten ditugun gauzek gero eta gutxiago irauten dute edo hondatzen dira bermearen epea amaitutakoan? Erantzuna erraza da: denbora laburrean apurtzeko diseinatu dituzte, gu bultzatzeko kontsumo konpulsiboaren lasterketa erotuan. Honi "**Zaharkitzapen programatua**" deritzo, eta garai guztietako xahutze eta eraketarik handienaren kausa da, horrek ingurumenean dakartzan ondorioekin.

Hori guztia zehaztaper handiz azaltzen da Espainiako telebistak eman zuen "**Erosi, bota, erosi**" dokumentalean. Bertan azaltzen dute enpresa-praktika jakin batekin nahita murrizten dutela gaien biziraupena kontsumoa handitzeko, edo arduratzen direla publizitate kanpainen bidez kontsumitzailea seduzitzen eta konbentzitzen bera izan dadin duen gai hori botatzen duena, eta berriena erosi nahi duena, era horretan abiatuta, gehiegi jabetu gabe, erabili eta bota portaera xahutzailean, dena apur bat berriagoa izateko desioan barrena, behar zuena baino apur bat lehenago, edo beharrezkoa izan gabe. Hori guztia gure kontsumo gizarte berriaren ezkutuko motor bilakatu da.

Jarraian duzu 2011n TVEk koproduzitutako eta emititutako dokumentalaren edukiaren laburpena. *Cosima Dannoritzerrek* egin zituen gidoia eta zuzendaritza lanak.

Erosi, bota, erosi

Bonbillen fabrikazioa izan zen Zaharkitzapen programatuaren (edo gai baten biziraupena nahita murriztea) lehenengo biktima. 1924an mundu mailako Kartel bat (elkartea) sortu zen bonbillen ekoizpena kontrolatzeko eta mundu mailako merkatuaren pastela banatzeko. Kartel horrek Phoebus izena hartu zuen. Bertan batu ziren munduko bonbilla fabrikatzaile nagusiak. Helburua zen patenteak trukatzeko, ekoizpena kontrolatzea, eta batez ere, kontsumitzailea kontrolatzea. Jendeak bonbillak erregulartasunez erostea nahi zuten. Bonbillek asko irauten bazuten desabantaila ekonomikoa zen. Hori dela-eta bonbillen biziraupena 1000 ordutara mugatzea pentsatu zuten. Hurrengo hamarkadetan dozenaka bonbilla asmatu ziren askoz gehiago irauten zutenak, 100.000 ordukoak eta gehiagokoak ere baziren, baina bat ere ez zen iritsi merkaturatzera.

Beste adibide bat da 1940an gertatutakoa enpresa kimiko batek zuntz sintetiko iraultzailea aurkeztu zuenean: Nylona. Zuntz hori emakumeen galtzerdietan aplikatzen hasi zirenean ikusi zuten oso sendoa zela, praktikan apurtezina. Arazo berri bat sortu zen, galtzerdiek gehiegi iraungo zuten orduz gero apurtzen ez zirelako. Horrek esan nahi zuen fabrikatzaileek ez zutela galtzerdi askorik salduko. Enpresa kimiko honek asmakizuna birplanteatu zuen eta zuntz sintetiko ahulagoak sortzea erabaki zuen, errazago apur zitezela erabileran. Horrela, galtzerdiek ez zuten horrenbeste iraungo. Merkatuko legeek ezartzen zuten fabrikatzen zituzten gaiak ahalik eta biziraupen laburrenekoak izatea.

Praktika berberak daude indarrean gaur egun. Adibide batzuk jarriko ditugu: Inprimagailu batzuen fabrikatzaileek txip bat jarri diete kopia kopuru jakin bat egin ondoren gehiago ez funtzionatzeko eta berria erosi behar izateko, garestiagoa delako konpontzea berria erostea baino.

iPod modelo batekin gauza bera gertatu zen. Horrela kontatzen du kaltetutako batek, gazte iparramerikar batek:

"400 dolar balio zuen iPod bat erosi nuen. 12 hilabetera batera hil zitzaion. Applera deitu nuen batera aldatzeko eskatuz, baina garai hartan haien politika zen bezeroei esatea beste iPod bat erosteko ordezkorik ez zegoelako. Iruzurtua sentitu nintzen. Nire anaiak ideia bat eduki zuen: bideo bat egitea honi buruz, ondoren gure webean zintzilikatzeko. Film labur horretan gazte bat ikusten zen iPod berria iragartzen zen publizitate hesietan ondo errotulaturako graffiti bat egiten zera zioena: iPoden batera ordezkazekin 18 hilabete baino ez du irauten!!

Gure webean zintzilikatu eta lehenengo hilabetean 6 milioi bisita izan zituen. Bideoa ikusi zuen abokatu batek Apple salatu zuen bateriagatik. iPodak 2 urte zeramatzan salgai eta Estatu Batuetan 3 milioi unitate salduta, kontsumitzaile askok zituzten arazoak bateriarekin, eta auzi eske kolektiboa egin zuten 2003ko abenduan. Epaietan frogatu zen batera diseinatu zela biziraupen laburra izateko. Applek derrigortua ikusi zuen bere burua ordezkoen zerbitzua sortzeko eta bere produktuaren bermearen epea 2 urtera arte luzatzeko"

Zaharkitzapen programatua masako ekoizpenarekin eta gizarte-kontsumoarekin batera sortu zen. Gutxiago irauteko egindako gaien arazoa industria iraultzarekin batera hasi zen eredia da. Makinetatik askoz merkantzia merkeagoak ateratzen ziren eta zoragarria zen kontsumitzaileentzat. Baina ekoizpena handiegia zen eta jendeak ezin zuten makinaren erritmoa jarraitu.



1928an aldizkari espezializatu batean zera aipatzen zen artikulu batean: **“higatzen ez den produktua negozioetarako zoritxarra da”**. Izan ere, piloan sortutako ekoizpenarekin artikuluak eskuragarriagoak egin ziren eta jendea beharragatik baino dibertsioagatik hasi zen erosten. Eta horrek ekonomia azelerarazi zuen. Baina 1929an Wall Streeteko krisiak bat-batean geratu zuen hasi berria zen kontsumo-gizartea eta Estatu Batuak ekonomia atzeraldi sakonera eraman zituen.

20 urte geroago, 1950ean, *Zaharkitzapen programatua* berriro sortu zen, baina aldaera batekin: honezkero helburua ez zen kontsumitzailea derrigortzea, seduzitzea baizik. Brooks Stevens industrial iparramerikarrak bultzatu zuen hau. Zera zioen:

“Antzinako ikuspegi europarra produkturik onena sortzea eta betiko irautea zen. Ikuspegi amerikarraren helburua da gozatu duen produktuarekiko kontsumitzaile asegabea sortzea, horrela bota egingo du edo bigarren eskuko salmentan jarri eta berriena erosiko du, irudi berrienarekin. Diseinuak eta marketinak kontsumitzailea seduzituko dute beti azken modeloa desio izateko”.

Brooksek ez zuen ez diseinatu ez fabrikatu inolako produkturik epe jakin bat igarotzean nahita hondatuko zena. *Zaharkitzapen programatua* kontsumitzailearen mendean geratu zen. Askatasuna eta zorientasuna mugarik gabeko kontsumoaren bidez. 50. hamarkadako bizimodu amerikarrak ezarri zituen egungo kontsumo-gizartearen oinarriak.

Zaharkitzapen programatua 50. hamarkadatik aurrera Mendebaldeak bizi izan duen hazkunde ekonomiko handiaren oinarrian dago. Orduz geroztik hazkundea izan da gure ekonomiaren grial santua.

Hazkunde-ekonomiak bere mende hartutako gizartean bizi gara, eta bere logika ez da beharrak asebetetzeko haztea, baizik eta haztea haztearren. Azkengabe haztea mugarik gabeko ekoizpenarekin. Eta hori justifikatzeko kontsumoak mugarik gabe hazi behar du.

Hazkunde gizarte honetako kritikoek OHARTARAZI dute epe luzera hau ez dela jasagarria, begien bistako kontraesan batean oinarritzen delako: **Mugarik gabeko hazkunde**

bateraezina da baliabide mugatuak dituen planeta batekin. Bide

horretatik jarraitzea eromena da. Esan dezakegu hazkunde gizartearekin abiadura bizian doan bolido batean igota goazela eta haren helmuga dela harresi baten aurka jotzea edo amildegitik behera erortzea.

Zaharkitzapen programatua ingurumenean izaten ari den inpaktua eta ondorioak natur ekosistemak akabatzen ari dira. Herrialde garatuetan sortzen ari diren hondakin, zabor eta gai kutsatzaileak ezin onartuzkoak izaten hasi dira planetarentzat, eta garatu gabeko eta pobretutako herrialdeak dira ingurumenaren hondamenaren ondorio larrienak jasaten ari direnak.

Xahutzearen ekonomia bere amaierara iristen ari da. **Denbora pasatu ahala konturatu**

gara planetak ezingo duela hau betiko jasan. Gure esku ditugun baliabide natural eta energetikoak mugatuak dira. Naturarentzako Munduko Funttsaren (WWF) ikerketen arabera “gizakiak Natura hondatzen ari dira aurrekaririk gabeko abiaduran. Suntsipen erritmo horretan jarraituz gero, biodibertsitate iturriak eta ur geza urte gutxitan agortuta egongo dira. 2050ean humanitateak Lurraren moduko 2 planeten urteko baliabideak kontsumituko ditu, bere kontsumo-erritmoa aldatzen ez badu.”

Zaharkitzapen programatuaren kritiko erradikalenak birplanteatu nahi dute gure eredu ekonomikoa eta bere balioak. Benetako iraultza da, kultur iraultza, mentalitate aldaketa eskatzen duelako. Iraultza honi Deshazkundera deritzo. Serge Latouch da bere sustatzaile eta bultzatzaile nagusia, eta ondoko hau esaten du:

“Deshazkundera hazkunde bideragarri, mugarik gabeko eta iraunkorrekiko diskurtso euforikoarekin apurtzen saiatzen den lelo probokatzailer bat da. Logikaren aldaketaren beharra erakusten saiatzen da. Deshazkunderaren muina hitz batez laburbil daiteke: MURRIZTEA. Xahutzea murriztea, kutsadura murriztea, gain-kontsumoa eta gainproduktzioa murriztea. Kontsumoa eta ekoizpena murriztean denbora irabaz dezakegu erabilerarekin agortzeko arriskurik ez duten beste aberastasun era batzuk garatzeko, besteak beste, adiskidetasuna eta jakintza”.

Gure identitateak eta autoestimua objektuekiko gero eta mendetasun handiagoa dute. Identitatea ematen ziguten gauzen krisiaren ondorioa da, komunitatearekin edo lurrarekin genuen harremana esate baterako. Edo kontsumismoak ordezkatu dituen gauza sinpleak.

Zorientasuna kontsumo mailaren mende balego guztiz zorientsuak izan beharko ginateke, izan ere, 26 aldiz gehiago kontsumitzen baitugu XX. mendearen lehen zatian baino. Baina inkestek erakusten dute gaur egun jendea ez dela 26 aldiz zorientsuagoa, gauza pila bat eduki arren.

Deshazkunderaren proposamenaren kritikoak beldur dira berau aurrera eramanez gero, ekonomia suntsitu eta Harriaren Arora itzularaziko gaituela. Dena den, planeta baino handiagoa ez den aztarna ekologikoa duen gizarte iraunkor batera itzultzeak ez du esan nahi Harriaren Arora itzuliko garenik, baizik eta 1960. hamarkadan bizitzak zituen indizeetara.

Deshazkundera ez da ekonomiaren atzeraldia. Apustu bat inplikatzeko du, ez eredu ekonomiko baten aldekoa, baizik eta bizitza-eredu baten aldekoa. Berarekin dakar konturatzea horrenbeste gauza ez direla beharrezkoak pertsonak zorientsuak izateko. Deshazkundera austeritate materialaren eta pertsonaren garapenaren aldeko apustua da, bere barne eremu guztietan. Planeta zaintzea esan nahi du, denen etxea delako eta suntsituz gero ez dagoelako besterik. Deshazkundera giza harremanek harreman ekonomikoen ginetik dute lehentasuna.

Deshazkunderaren gizartearen proposamenak Gandhiren ikuspegia errealitate bihurtzen du:

“Mundua nahikoa handia da denen beharrak asebetetzeko, baina beti izango da txikiagia batzuen zikoizkeriarako.”

3. Jarduera

“Domino efektua” eta Milurtekoaren Garapen Helburuen erronka


Hezitzailearen motibazioa jarduera honi hasiera emateko:

“Bizi garen mundu honetan, gizarte honetan, 7 hitzek ezaugarritzen duten bizimodua inposatzen da: **norberekoieria, kontsumismoa, diruzalekeria, xahutzea, lehiakortasuna, aberastea eta indiferentzia**. Gaur egun asko dira hitz guztiak edo horietako batzuk, neurri handiagoan edo txikiagoan, praktikan jartzen bizi direnak.

Hitz hauek praktikan jartzeak bere ondorioak ditu. Munduan pobrezia, gosea, txirotasuna, bidegabekeria, desberdintasunak badaude, 7 hitz horietako batzuk edo denak praktikatzen dituzten pertsona asko bizi direlako da. Eta pertsona horien artean mundu honetako gobernatzaileak eta botere ekonomikoa dutenak ere egon badaude.

Jabetu behar dugu gure ekintzek, gure erabakiek, txikiak eta garrantzi gabekoak diruditen arren, bizi garen munduan eragiten dutela, onerako zein txarrerako. “Domino efektua” eragiten dute asko badira gauza bera “praktikatzen” dutenak. Begien bistakoa da. Mundua dagoen bezala baldin badago da jende asko dagoelako une honetan bere bizimodua lotuta duena kontsumismoarekin, edo norberekoikeriarekin, edo diruzalekeriarekin, edo edozein eratan aberasteko nahiarekin, edo xahutzearekin, edo lehiakortasunarekin garaile izateko besteen gainetik pasatuta bada ere, edo hurkoaren arazoaren eta beharren aurreko indiferentziarekin.

Jabetu egingo gara 7 hitz hauek zer eragiten duten munduan Domino joko berezi honetan jolastuta.”



Motibazio-lan hori egin ondoren, hezitzaileak 4 kideko taldeak osatuko ditu eta 3. laneko dokumentua domino fitxekin banatuko dio talde bakoitzari, haiek ebaki ditzaten. Partida bat jokatu dute eta amaitzean hezitzaileak taldeko kide bakoitzari 4. laneko dokumentua “domino efektua” komentatzeko banatuko die.



3. Laneko dokumentua domino fitxak ebakitzeke

6 Aberastea 1300 milioi lagun bizi dira egunean euro batekin	6 Aberastea Aberastasunaren %90aren jabe da munduko biztanleen %20a	6 Aberastea 2600 milioi pertsona bizi dira egunean 2 € baino gutxiagorekin
6 Aberastea	5 Lehiakortasuna Lan bera eginda emakumeek %25 gutxiago irabazten dute	3 Diruzalekeria Afrikan biztanleen %43k ez du edateko urik

4 Xahutzea 448 milioi haurrek jasaten dute elikadura urritasuna	4 Xahutzea Goseak jotako haurren %90 Afrikan, Asiako hegoaldean eta Haitin dago	3 Diruzalekeria	3 Diruzalekeria Sahara azpiko biztanleen %64,5 pobreak dira
1 Norberekoikeria 880 milioi pertsonak ez dute aukerarik oinarritzko osasun zerbitzuak izateko	0 Indiferentzia Gobernatzaileak oso urruti daude munduko gosea deuseztatetik 2015erako	3 Diruzalekeria	2 Kontsumismoa Natur ekosistemak aurrekaririk gabeko erritmoan hondatzen ari gara

6 Aberastea 1210 pertsona dira 4,5 bilioi dolarren jabe. Pobreak pobreako dira	6 Aberastea 4000 milioi pertsona bizi dira pobrezia egoeran	6 Aberastea 70.000 pertsona hiltzen da egunero goseak eta pobrezia jota	5 Lehiakortasuna
2 Kontsumismoa Urtean Naturak sortzen dituen baliabideen %25 gehiago kontsumitzen dugu	1 Norberekoikeria 1600 milioi lagunek ez dute edateko ura lortzeko aukerarik	0 Indiferentzia 963 milioi pertsonak gose handia jasaten dute	5 Lehiakortasuna

3 Diruzalekeria Muturreko pobrezia jasaten duten %70 emakumeak dira	3 Diruzalekeria Hiesak jotako 42 milioi pertsonatik 39k ez du jasotzen behar duen tratamendua	2 Kontsumismoa	2 Kontsumismoa Espainian uretara botatzen dira 4,6 milioi tona kutsatzaile
1 Norberekoikeria 2000 milioi pertsonak ez dute aukerarik oinarritzko botikak izateko	0 Indiferentzia 5 urtetik beherako 30.000 adingabe hiltzen dira egunero senda zitezkeen gaixotasunek jota	2 Kontsumismoa	1 Norberekoikeria 2400 milioi pertsonak ez dute instalazio sanitario txukunik

5 Lehiakortasuna 876 milioi heldu analfabetoak dira, horietatik bi heren emakumeak dira	5 Lehiakortasuna 5 haurretatik batek ez du Lehen Hezkuntza ikasteko aukerarik	5 Lehiakortasuna Espainian 9 milioi pobre dago, biztanleen %19,6	5 Lehiakortasuna Europar 81 milioi pobre dago, biztanleen %16,5
4 Xahutzea Hiesarentzako botikarik egon ezean, herrialde afrikar batzuetan biztanle aktiboen 1/4 galduko dute	3 Diruzalekeria Asian 844 milioi pertsona pobre dago, biztanleen %51	2 Kontsumismoa Erritmo honetan, 2050ean kontsumituko ditugu 2 planetaren urteko baliabideak	1 Norberekoikeria 1000 milioi pertsonak ez dute etxebizitza duinik

2 Kontsumismoa Lantegietako gas kutsatzaileen igorpenak ez dira jaisten	1 Norberekoikeria	1 Norberekoikeria Sahara azpiko Afrikan 3tik batek gose kronikoa jasaten du	0 Indiferentzia
0 Indiferentzia 300 milioitik gora afrikar bizi dira euro bat baino gutxiagorekin	1 Norberekoikeria	0 Indiferentzia Afrikan 5 urtetik beherako 30 milioi adingabek elikadura urritasuna jasaten dute	0 Indiferentzia

5 Lehiakortasuna 30.000 pertsona bizi da etxebizitzarik gabe Espainian	4 Xahutzea	4 Xahutzea 500.000tik gora emakume hiltzen dira urtero erditzean mediku faltaz	4 Xahutzea Armamentuetan kopuru erraldoiak gastatzen dira, eta pobreak gero eta gehiago dira
0 Indiferentzia Gosea deuseztatzeke nahikoa zen krisi honetan Bankuak salbatzeko sartu denaren %1a	4 Xahutzea	3 Diruzalekeria Herrialde pobreetan 5 urtetik beherako 3 haurretatik 1 ez da ondo hazten elikadura okerragatik	2 Kontsumismoa Espezie animalien heren bat galdu da kutsaduragatik, basoen mozketagatik eta arrantzagatik

4. Laneko dokumentua "domino efektua" komentatzeko

Fitxak ebaki ondoren Dominoan jokatu duzue partida bat fitxa berezi hauekin. Amaitzean, fitxak mahai gainean utziko dituzue ahoz gora jokoa bukatu duzuenean geratu diren bezala. Bertan azaltzen diren hitzak behatuko dituzue, eta baita hitz hauek praktikan jartzen dituztenen erruz (gobernatzailerak eta herritarrak) munduaren egoerari buruzko datuak ere. Hori egin ondoren, taldeka erantzun eta komentatu dituzue ondoko galderak.

1. Zer pentsamendu edo gogoeta eragiten dizue Nazio Batuen, Caritasen eta WWFren azterketetatik hartutako datu hauek ezagutzeak?
2. Zer datuk eman dizute atentzioa bereziki, eta zeintzuk dira gehien haserretzen edo kezkatzen zaituztenak?
3. Jarrai dezakegu bizi izaten hemen ezer gertatuko ez balitz bezala, honek guztiak gurekin zerikusirik izango ez balu bezala? Zergatik? Jarrera horrekin jende asko bizi dela uste duzu?
4. Zer egiten dute gobernatzailerak horri irtenbide bat bilatzeko? Arretaz irakurri ondoko testua eta komentatu; ondoren, galdera honi erantzun: Pobreziaren aurkako kanpaina honen ekintzaren batean parte hartu duzue, edo lagundu duzue honen aurka borrokatzen den GKEren batean? Zergatik?

Hain zen eskandaluzkoa munduan pobreziaren, desberdintasunaren eta gosearen egoera, 2000. urtean 189 estatu eta gobernutako buruzagiek Nazio Batuen Milurtekoaren Adierazpena sinatu zutela, eta konpromisoa hartu zutela Milurtekoaren Garapenerako 8 Helburuak betetzeko, gosea eta pobrezia erazteko lehenengo urrats gisa. 2015. urtea jarri zuten epe gisa helburu horiek betetzeko. Ondoko hauek dira 8 Helburuak:

1. **Muturreko pobrezia eta gosea desagerraraztea.**
2. **Munduko haur guztiek Lehen Hezkuntza izatea lortzea.**
3. **Genero berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatzea.**
4. **Haur hilkortasuna murriztea.**
5. **Amen osasuna hobetzea.**
6. **Hiesa, paludismoa eta beste gaixotasun batzuk suntsitzea.**
7. **Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea (natura babestea)**
8. **Garapenerako Munduko Elkarte bat sustatzea (pobreziaren aurka elkarrekin eta koordinatuta lan egiteko)**

Baina errealitate gordina da gobernatzailerak ez dutela ezer egin edo ia ezer helburu horiek betetzeko, eta orain are gutxiago egingo dutela, krisian eta atzeraldi ekonomikoaren garai honetan. Urteak pasatu dira eta gauzak lehen bezain txarto daude. Hori dela-eta mundu mailan pobreziaren aurkako kanpaina handi bat hasi zen 100 herrialdetik gorako Erakunde solidarioek, GKEek eta herritar konprometituen elkarrekin sustatuta.

Bere helburua zen, eta jarraitzen du izaten, **gaur egun gobernatzailerak exijitzea 2000.** urtean Nazio Batuen Milurtekoaren Adierazpena sinatu zutenean hartu zituzten konpromisoak bete ditzaten, pobrezia eta gosea erazteko 8 Helburuak beteta.

Kanpainak **ZERO POBREZIA** du izena eta Historian pobreziaren aurka eman den mobilizaziorik handiena da. **Bere helburuetako bat da gizarte zibilak, zure eta nire moduko herritarrek, gure gobernatzailerak eta politikoak presionatzea pobreziarekin amaitzeko konpromisoa har dezaten.**



Mundu osoko milioika eta milioika herritarrek parte hartu dute eta jarraitzen dute parte hartzen kanpaina honek deituriko ekintzetan: manifestaldiak, sinaduren bilketa, elkartzunezko kontzertuak, ekintza eta keinu publikoak, elkartzunezko jaiak, jai ekitaldi errebendikatzaileak eta abar. Eta hori guztia kanpaina honen bereizgarria den begizta edo xingola zuriarekin lagunduta.

Herritar gisa konprometituta egon gaitzen proposatzen digu, EKINTZAILE izatea munduko pobreziaren aurkako borrokan:


- Munduko pobreziaren datuen bilakaerari buruz ondo informatuta egonik, eta baita politikoak eta gobernatzailerak presionatzeko proposatzen diren ekintzei buruz ere.
- Deitutako ekitaldi publikoetan eta manifestaldietan parte hartuz.
- Ezagutzen dugun jendea mobilizatuz borroka honetan parte har dezan.
- Arazo honi buruz gauden lekuan sentiberatzen, parte hartzen dugun sare sozialak eta foroak erabiliz, taldeak sortzen edo bat eginez beste talde batzuekin gogoeta egiteko eta elkarrekin pentsatzeko zer egin dezakegun entzun gaitzaten.
- Inguratzen gaituztenekiko bizimodu solidarioa eta konprometitua izaten.
- ...eta abar.

5. Zer egin dezakegu guk? Zer 7 hitz jarri beharko genuke praktikan, benetan, mundu hobe bat posible egiteko?
6. Ondoko esaldi hau sinesten dugu? "Jende txiki askok, gauza txiki asko eginez, leku txiki askotan... mundua alda dezake" (Eduardo Galeano). Zer gauza txiki pila egin dezakegu gutako bakoitzak fitxetan ikusi ditugun datuen aurrean, hau da, zer gauza txiki pila egin dezakegu aurreko galderan aipatu ditugun 7 hitz horietako bakoitza praktikan jartzeko? Egin zerrenda bat bururatzen zaizuen guztiarekin, txikia iruditzen zaizuen arren.

Gainerako taldeekin guztia bateratzen duzuenean, imajinatu esan duzuen gauza bakoitzerako pertsona bat dagoela prest praktikan jartzeko konpromisoa hartzeko, gutxienez gauza txiki horietako bat edo bi. Denborarekin "domino efektu" handia lortuko lukete pertsona horiek guztiak batera!!! Zenbat gauza on ereingo lituzketen inguruan eta areago ere.

Animatzen zarete horietako bat izatera?

Taldeek elkarren artean dena komentatu ondoren, horietako bat izan nahi duenak benetan konpromisoa hartu nahi duen gauza txiki horiek aukeratuko ditu. Hartu nahi dituen konpromiso beste domino-fitxa hartuko ditu (5 fitxa gehienez ere), eta atzetik idatzi egingo ditu bere konpromiso pertsonalak. (5 konpromiso baino gehiago baditu, fitxa bakoitzean bi idatz ditzake). Diru-zorroan gordeko ditu inoiz ez ahazteko. Jarduera egiten denetik hilabetera, hezitzaileak proposa dezake konpromiso horien praktika nola doan berrikustea. **Ez dadila gelditu domino efektua!**




GAZTE OTOITZAREN gunea

Batasunaren otoitza pobreekin

Lekua girotzea

Lurrean leku guztietatik jarriko dira kartulinaz, paperez edo egunkariz egindako pertsonen silueta ugari erditik apurtuta.



Denen aurrean lurrean giza silueta apurtu horietako batzuen gainean Biblia jarriko da ondoko aipu hau azaltzen den lekuan irekita: Ex 3, 7-12. Bere ondoan kandela batzuk egongo dira.

Bertaratuei otoitza biak biltzen dituen orrialde fotokopiatu bana emango zaie, Aitagure berezia eta bedeinkapenak.

Musika suabe jarriko da bildutasun giroa sortzeko

Otoitzaren garapena

(Otoitzaren animatzailea)

Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean hasiko dugu otoitza.

Ongi etorri otoitz gune honetara. Horrenbesteko pobrezia eta bidegabekeriaren biktimekin bat egin nahi dugu otoitzean. Haiekin batera sentitu nahi dugu, haiekin otoitz egin nahi dugu. Jainkoarekin bat egin nahi dugu gure bihotzak bete ditzan eta indarra eta argitasuna eman diezazkigula Erreinuaren eraikuntzan dagokigun zatia egin dezagun, gure inguruan mundu anaitasunezkoagoa, bidezkoagoa eta solidarioagoa posible egin dezagun.

Lurrean sinbolikoki adierazita aurkituko dira gaur egun pobreak, bidegabekeriak, goseak eta elkartasun faltak, bere eskubideen urraketak, bazterkeriak, lan faltak, bazterrean utziak eta indiferentziak jota bizi direnak.

Haien aurrean Jaungoikoa ez da inoiz isilik geratzen:

(1. irakurlea)

Exodo liburuko irakurgaia

“Jaunak esan zuen: Ongi ikusia dut nire herriaren atsekabea Egipton eta entzuna haien oihua zapaltzaileen zigorpean; bai, ohartu naiz haien oinazeaz. Egiptoarren eskuetatik libratzera etorri naiz, eta lurralde honetatik esnea eta ezta darizkion lurralde zabal eta jori batera igoaraztera. Hara, nireganaino heldu da israeldarren deiadarra, eta ikusi dut zeinen gogor erabiltzen dituzten egiptoarrek. Zoaz, bada, Faraoiarengana **bidaltzen zaitut**, ene herria, israeldarrak, Egiptotik atera ditzazun. Moisesek Jainkoari esan zion, orduan: Nor naiz ni Faraoiarengana joateko, nor israeldarrak Egiptotik ateratzeko? Jainkoak erantzun zion: **Zeurekin izango nauzu...**” (Ex 3, 7-12).

(Otoitzaren animatzailea)

Gaur egun, Jainkoaren herria dira lurreko pobreak, baztertuak, azkenak, gutxietsiak.

Gaur egun, Egipto da merkatu finantzarioak zuzentzen dituen Hazkundearen gizartearen sistema neoliberal, horrenbesteko pobrezia eta desberdintasuna eragiten dituen.

Gaur egun, Egipto da pertsona askoren bizitza zuzentzen duen mentalitate materialista eta kontsumista.

Gaur egun gutako bakoitzak jasotzen dugu ondoko mezu pertsonala: “Zoaz, bada; Faraoiarengana **bidaltzen zaitut**, ene herria, israeldarrak, Egiptotik atera ditzazun... **Zeurekin izango nauzu.**”

Gaur egun, gutako bakoitza... Jainkoak bidalitakoak gara... gure obren bidez bera ikusia izateko, bere eskuak eta bere begiak izan gaitezen, bere ahoa eta bere beroa izan gaitezen.

Orain bi korutara irakurriko dugu “Lagundu gaitzazu aldatzen” tituludun orrian dugun otoitza. Irakurri ondoren isiltasun minutu batzuk utziko ditugu meditatze eta barneratze.

Lagundu gaitzazu aldatzen, Jauna,
gauzei, munduari, bizitzari begiratzeko
zure begiradaz eta zure begietatik.

Sendatu ikustea galarazten digun itsutasuna
gure ondoan dabilzanen mina eta samina,
gure munduan bizi direnena, eguzki beraren pean.

Astindu gure bihotza ikusten ikas dezagun
begiak Ebanjelioz eta Erreinuaren Itxaropenez beteta.

Gure begietako errezela ireki
ikusiaren ikusiaz, besteengatik **hunkitu**,
eta **mugitu** ahal izateko bihotzaren barru-barrutik,
esku bat ematera joateko, eta bizitza osoa,
bideetako bazterretan erorita eta apurtuta daudenei,

gaur egungo legenardunei,
gizarte bidegabe honek
alde batera bota dituzte, ez dutelako kontatzen,
edo ez dutelako interesatzen,
edo errentagarriak ez direlako merkatu legeentzat.

Lagundu Jauna
ikusten,
eta aldatzen...
zu ikusten
eta aukera ematen...
utzi zenigun begirada miragarri hori erabiltzeko
munduari, errealitateari, bizitzari begiratzeko:
Ebanjelioaren begirada,

zure Jainkoaren begiekin ikusteko,
zure bihotz errukitsuarekin sentitzeko,
zure Espirituaren indarrak bultzatuta
eta zure su konprometituak jarduteko,
posible bilakatzeko, hemen lurrean,
itxaroten dugun mundu berria,
zeruetako Erreinua.
Hala bedi.

((musika suabe))

(2. irakurlea)

San Mateoren Ebanjelioaren irakurgaia

Jesusek, bere hamabi ikasleei dei eginik, ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko... Eta zera esan zien:

Bidez zoaztela, hots egin Jainkoaren erregetza gainean dela. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legenardunak, bota deabruak. Doan hartu duzue, eman doan. Ez eraman urrerik, ez zilarrik, ez dirurik gerrikoan, ez zakutorik biderako, ez soinekorik aldatzeko, ez oinetakorik, ezta makilarik ere, zor baitzaio langileari behar duen janaria. (Mt 10, 1-10)

(Otoitzaren animatzailea)

Bidaliak gara Erreinua presente egiteko. Gutako bakoitzak ditugun gaitasunetatik abiatuta, Jainkoak eman dizkigun talentuekin. Bidaliak gara. Gure bizitzaren partzelan egiten ez duguna, inork ez du gure ordeaz egingo.



Orain bi korutan irakurriko dugu "Nire aitaren etxean sartu" tituludun orrian dugun otoitza. Irakurri ondoren isiltasun minutu batzuk utziko ditugu meditatzeke eta barneratzeko.

Nire Aitaren etxean sartu

Gose izan nintzenean, jaten eman zenidan,
egarriak egon nintzenean, edaten eman zenidan.
Niretako txikienari egiten diozuna, neuri egiten didazu.
Orain, sartu nire Aitaren etxean.

Etixerik ez nuenean, zuk ateak ireki zenizkidan.
Biluzik nengoenean, zure mantua luzatu zenidan.
Nekatuta nengoenean, atsedena eskaini zenidan.
Urduri nengoenean, kezkak lasaitu zenizkidan.
Haurra nintzenean, irakurtzen erakutsi zenidan.

Bakarrik nengoenean, maitasuna ekarri zenidan.
Espetxean nengoenean, nire ziegara etorri zinen.
Ohean nengoenean, zaindu ninduzun.
Atzerrian, harrera ona egin zenidan.
Lanik ez nuenean, enplegu bat aurkitu zenidan.

Zaurituta nengoenean, nire zauriak zaindu zenizkidan.
Adeitasunaren bila nenbela, eskua luzatu zenidan.
Beltza, edo horia, edo zuria, iraindua eta adoregabeta nintzenean, nire gurutzea eraman zenuen,
Zaharra nintzenean, irribarre bat eskaini zenidan.

Kezkatuta nengoenean, nire pena partekatu zenuen.
Listukadaz eta odolez estalia ikusi ninduzun, nire aurpegiera izerditsupean ezagutu ninduzun,
iseka egiten zidatenean, nigandik gertu zinen.
Eta zoriontsua nintzenean, nire alaitasuna partekatu zenuen.

Beharrezkoa da guk konpromiso-bizimodu hori egitea, pobreen artean itxaropena ereiten jarraitu ahal izateko.
Beharrezkoa da gure maitasuna edozeinengan isuria izatea.
Jainkoarekiko gure maitasuna adierazteko guk dugun era bakarra da.

Jainkoak beharrezkoa dena ematen du.
Loreei eta txoriei ematen die,
eta unibertsoan sortu duen guztiari.
Eta txikiak eta azkenak dira bere bizitza.

Kalkutako Ama Teresa

(musika suabe)

(Otoitzaren animatzailea)

Orain elkarrekin Aitagure bat esango dugu eskuartean dugun orriari jarraituz.

(Aitagurearen esaldi bakoitzaren ondoren, eta dagokion irakurleak parte hartu baino lehen, aurrez aukeratutako pertsona bat aterako da lurretik jasotzeko pertsona apurtuaren siluetetako bat, zatiak batu eta denen aurrean berrosatzeko, eta berrosatu ondoren lurrean otoitzaren buru bezala dagoen Bibliaren ondoan utziko du).

Aitagurea

Denek: Aita gurea, zeruetan zarena

1. irakurlea: Baina irmoki sinisten dugu hemen ere bazaudela, historian txertatuta, gure errealitate zehatzean. Pertsona guztien aita, baztertuena, bizitzaren ertzean daudenena, gosea pasatzen dutenena, indarkeria, arbuioa, ezjakintasuna pairatzen dutenena bereziki.

Todos: Santifikatua zure izena.

2. irakurlea: Aita izenaren santutasuna leheneratzen lagundu gaitzazu gure anai-arreba konpromisoarekin. Pobreen eta baztertuen familiaren barruan gaudela jakiten. Zu AITA GUREA deitzeak ematen digun poza sentitzen.

Denek: Etor bedi zure Erreinua.

1. irakurlea: Kementsu eskatzen dizugu: zure Erreinua etor dadin. Zure Maitasunaren, Askatasunaren, Justiziaren, Bakearen Erreinua. Anai-arreben komunitate bateko anai-arreba sentitzen garen federekin eskatzen dizugu, baita zapore mingotsarekin ere, jabetzen baikara partekatzea eta banatzea ez dugula bizi berdinen familia batean.

Denek: Egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

2. irakurlea: Jo eta ke manten gaitzen eskatzen dizugu, ez dezagun amore eman beldurratik edo nekearengatik. Lagundu umilki bide egiten zure herri desjabetuaren ondoan, mesprezuak eta sufrimenduak elkarrekin sentitzen, gure baitan sentitzen horrenbesteko min eta lotsa, eta askatasunaren alde elkarrekin lan egiten.

Denek: Emaguzu gaur egun honetako ogia.

1. irakurlea: Zu gabe ez gara ezer. Zu gabe ezin dugu ezer egin. Emaguzu zure Ebanjelioaren ogia eta ardoa. Ez utzi aberastasunak pilatzen eta bultza gaitzazu garena eta duguna partekatzea.

Denek: Barkatu gure zorrak guk ere gure zordunei barkatzen diegun bezala.

2. irakurlea: Barkatu pobrezian behartsu bizi direnekiko gure indiferentziak eta sentsibilitate gabeziak. Barkatu gure ongizate eta erosotasun munduan bizitzeko dugun joera.

Denek: Ez gu tentaldira eraman baina atera gaitzazu gaitzetik.

1. irakurlea: Ez utzi erortzen kontsumismoaren sareetan. Ez utzi erortzen mundu hau aldatzeko ezin dugula ezer egin sinisteko tentaldian, eta pentsatzen egin genezakeen gauza bakarra dela gehiengoak egiten duenagatik eramaten uztea. Utopiaren gabeziaren, amets gabeziaren eta Itxaropen gabeziaren gaitzetik libra gaitzazu. Emaguzu fedearen gozamina, eta, mundu hobe, zure Erreinua, posible egiteko bere lan zati txikia egiten duten beste askorekin elkar batuta sentitzeko gozamina.

Denek: Hala bedi.

(Otoitzaren animatzailea)

Irakurri ondoren isiltasun minutu batzuk utziko ditugu Aitagure honekin meditatze eta barneratzeko.

(Otoitzaren animatzailea)

Une hauetan baten batek eskaeraren bat, eskertzen bat edo otoitz gune horretan bizi izan duen zerbait partekatu nahiko balu, hauxe da momentua.

(Otoitzaren animatzailea)

Otoitz une honi amaiera emateko ondoko azken keinua egingo dugu. Zuetako bakoitzak banatu zitzaizuen orrian dauden **Bedeinkapenetako** bat aukeratuko duzue, zuen aldamenean dagoen pertsona horietako bati begira jarriko zarete, zuen eskua bere buru gainean jarriko diozue eta ozenki esango diozue aukeratu duzuen **bedeinkapena**. Amaitutakoan, berak gauza bera egingo du zuekin eta bere Bedeinkapena emango dizue.

Denek Bedeinkapena eman eta jaso ondoren, bake besarkada bat emango diogu elkarri eta otoitza amaitutzat emango dugu.

BEDEINKAPENAK

- Jainkoak bedeinka zaitzala eta zoriontsua izan zaitez. Bihotzen bakea ez diezazula ezerk eta inork kendu. Ez ezazu inoiz fedea galdu zugar, gainerakoengan eta Jainkoarengan.
- Jainkoaren, *Aita-Ama*, izenean bedeinkatzen zaitut. Bizitzak irribarre egin diezazula, zoriontsua izan zaitezela. Zugana hurbiltzen direnei konfiantza eta alaitasuna transmiti diezazula.
- Aitarene, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bedeinkatzen zaitut. Jainkoak barreia dezala zugar bere grazia. Eta zure bizitzaren egun guztietan ongia egin diezazula.
- Jainkoak zure alde egin dezala eta lasaitu zaitzala. Hurkoarengan laguntza aurki diezazula. Eta denentzat ona izan zaitezela.
- Jesukristoren Jainkoaren izenean bedeinkatzen zaitut, Aita-Ama maitagarria, argia eta laguntza izan zaitezela egunero inguratzen zaituztenentzat
- Jesusen, Kristoren izenean bedeinkatzen zaitut. Eta bidean aurkitzen duzunari ongia egin diezazun desio dizut.
- Jesusen, Jainkoak Igurtziaren izenean. Bedeinkatzen zaitut, bere bidea jarraituz, beti fidela izaten jarrai dezazun, eta bere laguntasunaren segurtasuna izan dezazun beti zure alboan.



Cáritas

www.caritas.es